

FUNTSEZKO JARDUERAK

Hiru gauza garrantzitsu euki behar ditugu kontuan. Ekoizpena gauzarik garrantzitsuena da, produktua %100 guk egina izango da. Lehenik, kamiseta egiteko oihal egokia erosiko dugu. Ondoren, josteko makinekin josiko, oihalari kamiseta forma emanez. Azkenik, kamiseta bakoitzerako diseinu bakarra diseinatu eta jarriko dugu. Webgunera igotzeko argazki bat atera ondoren dendara eramango dugu.

Produktu gabe geratzen bagara, ez dugu ezer irabaziko eta ekoizpenaren barruan ere baloratu behar dugu produktuaren kalitatea eta prezioa. Gainera, enpresaren produktibitatea errentagarria izan behar da bestela, dirua galduko genuke edo oso gutxi irabaziko genuke eta enpresa, diru galera handia izango zen gure bizitzetan.

Bigarren gauza, arazoak konpontzea izango da enpresan, komunikazioa eduki behar dugu gure artean eta arazoak konpontzeko entzun behar ditugu kezka guztiak eta konpontzeko aukerak entzun behar ditugu, denon artean komunikatzen eta taldean lan eginez. Komunikazio ona baldin eta badaukagu askoz hobeto joango da gure enpresa eta errentagarritasuna hobetuko du.

Hirugarrena, plataforma eta sareko jarduerak aurrera eramatea dira. Hauek izatea enpresan ez dira funtsezkoak baina, oso garrantzitsuak dira. Sare edo webgune batekin salmenta handiagoak eta gainera salmenta internazionalak eduki ahal ditugu mundu guztian, enpresa handiagotzen bada. Guk webgune bat sortuko dugu denda fisiko gutxi edukiko ditugulako eta horrela hasiera batean irabazi handiagoak edukiko ditugu denda gehiago egiteko.

